

# BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

*IDATZIZKO AZTERKETA*

# ARGIBIDEAK

 **Hizkuntza eskakizun honen azterketak bi zati ditu:**

## Ahozko azterketa

- Ahozko azterketa, idatziaren ondoren egingo da. Non eta zer ordutan egin behar duzun, irteeran esango dizugu. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko ahozkoa eta idatzia, biak gainditu behar dituzu. Ez zaitetz joan, beraz, ahozkoa egin baino lehen.
- Ahozko azterketan elkarrizketa izango duzu aztertzaileekin. Egiten hasi baino lehen, haiek esango dizute zeri buruz hitz egin behar duzun. Jakina, zeure euskalkian hitz egin dezakezu eta euskara batuan ere bai.

## Idatzizko azterketa

- Idatzizko azterketak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 30 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta bertan jartzen duena egizu.
- Idatzizko azterketaren ariketak boligrafoz egin behar dira; saia zaitetz letra txukuna egiten.

## 1. IRAKURMENA

- **Teknika:** Cloze-testa
- **Ariketa:**
  - Ondoren 50 hutsuneko testua daukazu.
  - Zenbaki bakoitzak hitza kendu dela adierazten du.
  - Aukera ezazu erantzun-orrian zenbaki bakoitzari dagokion hitza.
  - Ezer egin aurretik artikulua osorik irakurtzea gomendatzen dizugu.

## EROSKETA ARDURATSUA

Azken urteotan, erosteko ohiturak asko aldatu dira. Lehen, etxetik erosketetarako poltsarekin irten eta herriko azokara edo beheko dendara joaten zen jendea. Orain, \_\_1\_\_, autoa hartuta merkataritza-gune handietara joatea \_\_2\_\_ da, eta ingurumena hasia da \_\_3\_\_ aldaketa horren eragina jasaten.

Gaur egun hipermerkatuetara joateko ohitura oso \_\_4\_\_ dago; bertaraino autoz joan eta aste osorako erosketak leku \_\_5\_\_ egin daitezke. \_\_6\_\_ batekoarekin alderatzeko etxeko zakarrontzian begiratzuz gero, aldaketa \_\_7\_\_ ikusten da. Birziklatzearen aroaren aurretik, zakarrontzi bakarra izaten zen eta bertan hondakin organikoak pilatzen ziren \_\_8\_\_. Beirazko botilarik ia ez zen aurkitzen zaborretan, gehienak dendara itzultzen \_\_9\_\_. Egun, zakarrontzi bakarra izan \_\_10\_\_, hiruzpalau izaten dira, zaborrak egoki sailkatuz birziklatzea \_\_11\_\_. Baina deigarriena edukia da. Zakarrontzia plastikozko ontziz eta poltsaz eta metalezko lataz betetzen da, erositako produktu gehienak bildurik etortzen dira eta. \_\_12\_\_, kilo bat tomate erostean, \_\_13\_\_ gain kartoizko bandejatxoa eta plastikozko bilgarria ere eramaten dira etxera. Bilgarri horien helburua ez da \_\_14\_\_ produktua etxeraino erosoago eramaten \_\_15\_\_, erakargarriago ere egiten du produktua. \_\_16\_\_, bada bilgarria ezinbestekoa ez dela pentsatzen \_\_17\_\_. Bilgarria ekoizteko erabiltzen diren lehengaiak eta energia alferrik gastatu direla pentsa \_\_18\_\_, garraioan eta lehengaien \_\_19\_\_ sortzen den kutsadura ahaztu gabe.

Hori guztia kontuan \_\_\_20\_\_\_, zergatik ez egin eroslea bera erosten duenaren erantzule? \_\_\_21\_\_\_, eroslea bera izan \_\_\_22\_\_\_ produktuen ekoizpenean eta garraioan kontsumitu eta kutsatu denaren arduradun. Bide horretatik, erosketa arduratsuagoa \_\_\_23\_\_\_ nahi da, egungo kontsumo-ohiturek ingurumenari \_\_\_24\_\_\_ dioten kaltea murrizteko. \_\_\_25\_\_\_ kontsumoak sortzen dituen kalteak murrizteko ohiturak aldatzea baino ez dago. Baina ohiturak aldatzea ez dirudi \_\_\_26\_\_\_ erraza denik. Lehen pausua lehenengo ohiturak \_\_\_27\_\_\_ izan daiteke: ogia erosterakoan otarra etxetik eramatea, behar ez denean argia itzaltzea, etxea epeldutakoan berogailua kentzea, oinez joatea \_\_\_28\_\_\_ dendetara autoa hartu beharrean eta abar.

\_\_\_29\_\_\_, alferrikakoak diren tresna eta objektu asko pilatzen dira ia erabili gabe; \_\_\_30\_\_\_, zerbait erosi aurretik, emango zaion erabileraren \_\_\_31\_\_\_ beste norbaiti eskatzeko edo \_\_\_32\_\_\_ aukerarik dagoen ikus daiteke. Produktuaren jatorriak ere badu bere garrantzia. Kanpotik ekarritako produktuen garraioan erregai ugari kontsumitzen da. \_\_\_33\_\_\_, enpresa ekoizleak ingurumen-araudia betetzen duen ala ez jakitea interesgarria gerta \_\_\_34\_\_\_ . Gai toxikoak erabiltzen dituen edo langileek soldata duina jasotzen duten jakitea ere, zaila izan \_\_\_35\_\_\_, interesgarria da. Jakina da enpresa askok ingurumen-araudi \_\_\_36\_\_\_ dituzten herrialdeetara eramaten dituztela fabrikak, garatze bidean daudenetara normalean, eta \_\_\_37\_\_\_, produktuen ekoizpena garbia \_\_\_38\_\_\_ zalantzan jar daiteke. Garrantzitsua litzateke, produktua erabili ondoren, ekoizlea arduratzea produktua jaso eta birziklatzeaz, \_\_\_39\_\_\_ material desberdin asko dituzten produktuen kasuan (autoak, garbigailuak...), material horiek guztiak \_\_\_40\_\_\_ birziklatu behar dira eta.

\_\_\_41\_\_\_ bakarrik erabilia botatzen diren produktuak oso modan daude gaur egun. Horren \_\_\_42\_\_\_ ditugu mukizapiak, argazki kamerak... Tresna asko dira konpondu beharrean bota egiten direnak berria erosteko, \_\_\_43\_\_\_, konpontzea berria erostea baino garestiagoa izaten delako \_\_\_44\_\_\_ . Antzinako usadioetara itzuliz, erosten diren tresnak \_\_\_45\_\_\_ gehiena iraun dezaten saiatzea komeniko litzateke. Beste \_\_\_46\_\_\_ bat ingurumenari eginiko kaltearen \_\_\_47\_\_\_ prezioa igotzea izango litzateke; \_\_\_48\_\_\_, produkturik kutsagarrienak garestiagoak izango lirateke. \_\_\_49\_\_\_, produktuen etiketetan guztion informazio-eskubidea bermatzea beharrezkoa da, \_\_\_50\_\_\_.

**NAGORE REMENTERIA**  
**ZAZPIKA, 2003ko maiatzaren 18a**  
**EGOKITUA**

## 1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** « EROSKETA ARDURATSUA »
- **Teknika:** Cloze-testa

- |   |   |  |  |
|---|---|--|--|
| 1. a) baino<br>b) bestela<br>c) ordea<br>d) beraz             | 2. a) aldekoa<br>b) gogokoa<br>c) bezalakoa<br>d) ohikoa    | 3. a) oraindik<br>b) dagoeneko<br>c) betidanik<br>d) ordurako      | 4. a) ohartuta<br>b) nabarituta<br>c) irudituta<br>d) zabaldua     |
| 5. a) berarengan<br>b) berean<br>c) bertan<br>d) berdinean    | 6. a) Epe<br>b) Asti<br>c) Aro<br>d) Garai                  | 7. a) nabarmena<br>b) samarra<br>c) nagusia<br>d) pixka            | 8. a) gehienbat<br>b) gainera<br>c) ere<br>d) harrezkero           |
| 9. a) zirela<br>b) zirelakoan<br>c) zirenez<br>d) baitziren   | 10. a) nahian<br>b) beharrean<br>c) ezik<br>d) ez ezik      | 11. a) errazteko<br>b) murrizteko<br>c) kokatzeko<br>d) batzeko    | 12. a) Beharbada<br>b) Esate baterako<br>c) Badirudi<br>d) Auskalo |
| 13. a) tomateez<br>b) tomatea<br>c) tomateen<br>d) tomateak   | 14. a) soilik<br>b) baizik<br>c) baino<br>d) hutsik         | 15. a) laguntzeko<br>b) laguntzen<br>c) laguntzera<br>d) laguntzea | 16. a) Bestela<br>b) Hala ere<br>c) Nolabait<br>d) Zeren eta       |
| 17. a) duena<br>b) duenik<br>c) duen<br>d) duenak             | 18. a) liteke<br>b) ligukete<br>c) litzateke<br>d) daitezke | 19. a) batuketan<br>b) miaketan<br>c) eraldaketan<br>d) trukaketan | 20. a) izatea<br>b) izatean<br>c) izan<br>d) izanda                |
| 21. a) Bestetik<br>b) Dena den<br>c) Alegia<br>d) Edonola ere | 22. a) dezala<br>b) dezakeela<br>c) daitekeela<br>d) dadila | 23. a) aditu<br>b) salatu<br>c) bultzatu<br>d) prestatu            | 24. a) eragiten<br>b) frogatzen<br>c) burutzen<br>d) arduratzen    |

25. a) Ustekabeko  
b) Gehiegizko  
c) Indarrezko  
d) Ereduzko
26. a) horrenbeste  
b) adina  
c) hain  
d) bezain
27. a) argitzea  
b) berreskuratzea  
c) lortzea  
d) eraikitzea
28. a) orduko  
b) giroko  
c) gertuko  
d) eremuko
29. a) Batere  
b) Berriz  
c) Bestalde  
d) Batik bat
30. a) gehienez  
b) hori dela eta  
c) inolaz ere  
d) aldiz
31. a) arabera  
b) gisa  
c) menpe  
d) antzera
32. a) heltzeko  
b) mugatzeko  
c) jabetzeko  
d) alokatzeko
33. a) Baita  
b) Halaber  
c) Baliiteke  
d) Demagun
34. a) dakiguke  
b) dezake  
c) diezaguke  
d) ditzake
35. a) ahala  
b) arte  
c) arren  
d) gabe
36. a) leunagoak  
b) astunagoak  
c) zorrotzagoak  
d) goibelagoak
37. a) bidez  
b) alderantziz  
c) izan ere  
d) ondorioz
38. a) delako  
b) dela  
c) den  
d) denez
39. a) bide batez  
b) batetik bestera  
c) batez beste  
d) batez ere
40. a) bereizita  
b) jasota  
c) garatuta  
d) trebatuta
41. a) Bestean  
b) Batera  
c) Bakar  
d) Behin
42. a) adibide  
b) adibidez  
c) adibidetan  
d) adibidearentzat
43. a) era berean  
b) baina  
c) besteak beste  
d) aldi berean
44. a) inoiz ere  
b) ugari  
c) asko  
d) maiz
45. a) orduan eta  
b) gero eta  
c) ahalik eta  
d) zenbat eta
46. a) irtenbideetako  
b) eragiketetako  
c) oinarrietako  
d) etekinetako
47. a) ordaintzeaz  
b) ordaintzeko  
c) ordainetan  
d) ordaintzean
48. a) hala  
b) berez  
c) heinean  
d) bada
49. a) Horretaz  
b) Horrekin  
c) Horregatik  
d) Horretarako
50. a) hau da  
b) noski  
c) hots  
d) aski

**1.2. ZUZENKETA-ORRIA**

- **Irakurgaia:** « EROSKETA ARDURATSUA »
- **Teknika:** Cloze-testa.
- Irakurmenaren atala gaindituzat emateko, gutxienez 30 itemi erantzun beharko die zuzen azterketariak.

**ERANTZUN ZUZENAK**

1.	<b>C</b>	2.	<b>D</b>	3.	<b>B</b>	4.	<b>D</b>
5.	<b>B</b>	6.	<b>D</b>	7.	<b>A</b>	8.	<b>A</b>
9.	<b>D</b>	10.	<b>B</b>	11.	<b>A</b>	12.	<b>B</b>

13.	<b>A</b>	14.	<b>A</b>	15.	<b>D</b>	16.	<b>B</b>
17.	<b>B</b>	18.	<b>A</b>	19.	<b>C</b>	20.	<b>D</b>
21.	<b>C</b>	22.	<b>D</b>	23.	<b>C</b>	24.	<b>A</b>

25.	<b>B</b>	26.	<b>C</b>	27.	<b>B</b>	28.	<b>C</b>
29.	<b>C</b>	30.	<b>B</b>	31.	<b>A</b>	32.	<b>D</b>
33.	<b>B</b>	34.	<b>A</b>	35.	<b>C</b>	36.	<b>A</b>

37.	<b>D</b>	38.	<b>C</b>	39.	<b>D</b>	40.	<b>A</b>
41.	<b>D</b>	42.	<b>A</b>	43.	<b>C</b>	44.	<b>D</b>
45.	<b>C</b>	46.	<b>A</b>	47.	<b>C</b>	48.	<b>A</b>
49.	<b>D</b>	50.	<b>B</b>				

## 2. IDAZMENA

- **Teknika:** ESKUTITZA
- **Oharrak:**
  - Gutxienez 245 hitz idatzi behar dituzu (35 bat lerro).
  - Zaindu eskutitzaren zuzentasuna, aberastasuna eta jatortasuna.
  - Letra garbia eta txukuna egiten saiatu.

**GAIA:** Bizi zaren hirian zaborrak biltzea udalaren ardura zen lehen. Orain enpresa bat kontratatu dute lan hori egiteko. Zure auzoan ez zaudete batere gustura enpresa berri horrekin.

Auzokoen izenean idatz iezaiozu alkateari eskutitz bat zuen kezka agertzeko eta eskatu egoera konpontzeko.

---

---

---

---

---

5

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

10

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

15

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

20

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

25

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

30

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

35

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

40

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

45

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

50

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---